

4

MUSIKA

U N I T A T E A

MUSICA

HELBURUA

Bezeroak gustuko musika eskatzean erantzutea.

OBJETIVO

Responder cuando el cliente le pide la música que le gusta.

4.1. Elkarrizketa

4.2. Ariketak

4.3. Azalpenak

4.4. Hiztegia

4.5. Errepasoa

4.6. Badakizu?

4.7. Erantzunak

4.1. Diálogo

4.2. Ejercicios

4.3. Explicaciones

4.4. Diccionario

4.5. Repaso

4.6. ¿Sabías que...?


4.7. Soluciones

4.1. Elkarrizketa



*Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.
Audio-pasartea: CDaren 7. pista.*

PUBEAN MUSIKA LASAIA DAGO, BAINA AINARARI
EZ ZAIO GUSTATZEN. MAHAITIK ALTXATUKO DA
ETA TABERNARIARI ALDATZEKO ESANGO DIO.



Ainara: *Aizu, musika aldatuko al duzu?*

Tabernaria: *Zer, ez zaizu gustatzen?*


Ainara: *Bai, baina nahiago dut euskal musika.*

Tabernaria: *Euskal musika hemen dago. Aukeratu.*



Ainara: *Jar ezazu hau, Mikel Urdangarin da.*

Tabernaria: *Bale, oso polita da. Niri ere gustatzen zait.*



Ainara: *Altuxeago jarriko duzu?*

Tabernaria: *Bai, baino altuegi ez.*


Ainara: *Bale, oso ondo; horrela bai.*

4.1. Diálogo



El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.
Audio: Pista 7 CD.

EN EL PUB HAY MUSICA TRANQUILA, PERO A AINARA NO LE GUSTA. SE LEVANTA DE LA MESA Y LE PIDE AL CAMARERO QUE LA CAMBIE.



Ainara: *¿Te importa cambiar la música?*

Camarero: *¿Qué, no te gusta?*


Ainara: *Sí, pero prefiero la música vasca.*

Camarero: *La música vasca esta aquí. Elige la que quieras.*



Ainara: *Pon ésta, es Mikel Urdangarin.*

Camarero: *Vale, es muy bonita. A mí también me gusta.*



Ainara: *¿La pones un poco más alta?*

Camarero: *Sí, pero demasiado alta no, ¿eh?*

Ainara: *Vale, muy bien; así sí.*

4.2. Ariketak • Ejercicios

1. Ariketa

Entzun berriro elkarrizketa eta osatu hutsuneak.

Escucha de nuevo el diálogo y completa los huecos.

Audio-pasartea: CDaren 7. pista / Audio: Pista 7 CD.

Ainara: Aizu, musika aldatuko al duzu?

Tabernaria: Zer,.....?

Ainara: Bai, baina nahiago dut euskal musika.

Tabernaria:.....,



Ainara: Jar ezazu hau, Mikel Urdangarin da.

Tabernaria: Bale, oso polita da.



Ainara: Altuxeago jarriko duzu?

Tabernaria: Bai,

Ainara: Bale, oso ondo; horrela bai.



2. Ariketa

Lotu esanahi bereko hitzak.

Une las palabras que tienen el mismo significado.

MUSIKA

CAMBIAR

GUSTATU

PONER

JARRI

ASI

ALDATU

MUSICA

BAXUXEAGO

GUSTAR

HORRELA

UN POCO MAS BAJO

4.2. Ariketak • Ejercicios

3. Ariketa

Lotu irudiak eta esaldiak.

Une las frases y los dibujos.

a.

Musika klasikoa
gustatzen zait.



b.

Euskal musika
nahiago dut.



c.

Jazza gustatzen
zaizu?



1.



2.



3.



4. Ariketa

Jarri euskaraz esaldi hauek.

Pon en euskera estas frases.

1. Prefiero el rock.

.....

2. ¿No te gusta?

.....

3. Pon Benito Lertxundi.

.....

4. Es muy bonito.

.....

4.3. Azalpenak

A. Hau gustatzen zait / / Hau ez zait gustatzen

Gustuak edo zaletasuna adierazteko honako egitura hau erabiliko dugu.

Gauza + GUSTATZEN + ZAIT (NIRI)
+ ZAIZU (ZURI)
+ ZAIGU (GURI)
+ ZAIZUE (ZUEI)

Adib. EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIT.

Ezezkoa bada:

Gauza + EZ ZAIT/ZAIZU/ZAIGU/ZAIZUE + GUSTATZEN.

Adib. EUSKAL MUSIKA EZ ZAIT GUSTATZEN.

Eta galderari dagokionez:

EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIZU?

BAI, EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIT.

Edo

EZ, EUSKAL MUSIKA EZ ZAIT GUSTATZEN.

B. Aginduak

Euskaraz aginduak emateko forma bat baino gehiago dago. Hemen bi bakarrik ikusiko ditugu.

a. Aditza bera infinitiboan erabiliz:

Ekarri! • Aldatu! • Jarri!

Ikusten duzunez, berdin erabiltzen da "zu" edo "zuek" izanda.

b. Pertsona bereiztuz:

Ekar ezazu! • Alda ezazu! • Jar ezazu!

C. Altuago, altuxeago, altuegi

"Más alto", "un poco más alto", "demasiado alto"... nola esango dugu?

Hauek adierazteko egitura hau erabili beharko dugu:

Adjektiboa + ago = altuago

Altu + xeago = altuxeago

Altu + egi = altuegi

4.3. Explicaciones

A. Esto me gusta / Esto no me gusta

Para expresar los gustos o aficiones en euskera utilizaremos la siguiente estructura:

OBJETO + GUSTATZEN + ZAIT (A MI)
 + ZAIZU (A TI)
 + ZAIGU (A NOSOTROS)
 + ZAIZUE (A VOSOTROS)

EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIT= ME GUSTA LA MUSICA VASCA

Esto para las afirmativas; y si es negativa:

OBJETO + EZ + ZAIT/ZAIZU/ZAIGU/ZAIZUE + GUSTATZEN
MUSIKA EZ ZAIT GUSTATZEN = NO ME GUSTA LA MUSICA

En lo que respecta a las preguntas:

EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIZU?
 ¿TE GUSTA LA MUSICA VASCA?
BAI, EUSKAL MUSIKA GUSTATZEN ZAIT.
 SI, ME GUSTA LA MUSICA VASCA.
EZ, EUSKAL MUSIKA EZ ZAIT GUSTATZEN.
 NO, NO ME GUSTA LA MUSICA VASCA.

B. Ordenes

En euskera hay más de una forma de expresar las órdenes.
 Aquí solamente estudiaremos dos:

a. Utilizando el verbo en infinitivo:

Ekarri! ¡Trae! / ¡Traed! • Aldatu! ¡Cambia! / ¡Cambiad!
Jarri! Pon! / ¡Poned!

Como verás, se utiliza igual para "tú" o "vosotros"

b. Especificando la persona:

Ekar ezazu! ¡Traelo tú! • Alda ezazu! ¡Cambialo tú!
Jar ezazu! ¡Ponlo tú!

C. Más alto, un poco más alto, demasiado alto

¿Cómo se dice? Para expresar estos "grados" utilizaremos esta estructura:

Más: adjetivo + AGO= altuago (más alto)

Un poco más: adjetivo + XEAGO= altuxeago (un poco más alto)

Demasiado: adjetivo + EGI= altuegi (demasiado alto)

4.4. Hiztegia

ADITZAK

Aldatu
Altxatu
Aukeratu
Gustatu
Igo; Altxatu
Ipini
Jaitsi
Jarri
Kendu
Nahiago izan

JANARIAK ETA EDARIAK

Kafe irlandar
Koinak
Konbinatu
Kopa
Likore
Txanpain
Txupito

Diccionario

VERBOS

Cambiar
Levantarse
Elegir
Gustar
Subir
Poner
Bajar
Poner
Quitar
Preferir

COMIDAS Y BEBIDAS

Café irlandés
Coñac
Combinado
Copa
Licor
Champagne
Chupito

4.4. Hiztegia

BESTERIK

Abeslari
Alai
Altu
Atsegin
Baxu
Da
Dantza
Euskal musika
Goxo
Hau
Horrela
Itsusi
Musika
Musika klasiko
Musika-talde
Oso
Polit
Triste
Txoko
Zarata

Diccionario

OTROS

Cantante
Alegre
Alto
Agradable
Bajo
Es
Danza
Música de Euskal Herria
Suave
Este/a/o
Así
Feo
Música
Música clásica
Grupo musical
Muy
Bonito
Triste
Rincón
Ruido

4.5. Errepasoa • Repaso

A. Euskaratu.

Pon en euskera.

- a. Julio Iglesias no me gusta.
.....
- b. La música es muy bonita.
.....
- c. Pon un poco más bajo.
.....
- d. Pon un poco más alto.
.....

B. Lotu kontrako esanahia dutenak.

Une las palabras que signifiquen lo contrario.

ALTUEGIA

POLITA

JARRI

ESKATU

ALTXATU

ITSUSIA

EMAN

JAITSI

BAXUEGIA

KENDU

C. Jarri esaldiak beren lekuan elkarrizketa osatzeko.

Pon las frases en su sitio para completar el diálogo.

Bai, zein musika nahi duzu?/Musika aldatuko duzu?/Musika lasaia nahi dut.

Bezeroa:


Tabernaria:

Bezeroa:

Bai, hau oso polita da/Hau gustatzen zaizu?

Tabernaria:

Bezeroa:



4.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

Egutegiari begiratu gero, festa mordoa aurkituko duzu. Inauteriak, herri bakoitzeko festak, santomasak... Euskal Herriko festa batzuk oso ezagunak dira, izan ere, nork ez ditu ezagutzen Donostiako Danborrada, sanferminak edo Irungo Alardea? Hala ere, badira beste batzuk, hain ezagunak izan gabe, oso politak edo bitxiak direnak: adibidez, Urkiolako "sanantonioak". Ekainaren 13an ospatzen da, Bizkaiko Urkiola mendian dagoen San Antonio Santutegian, eta erromeria horretara mota guztietako jendea joaten bada ere, helburua oso berezia da. Diotenez, San Antoniok senargaia edo andregaiak aurkitzen laguntzen du. Elizaren aurrean dagoen harritzarrari hiru buelta eman, eliza barruan santuari kandela bat piztu eta listo! Hurrengo egunean bikotea aseguratuta! Edo horrela esaten du, behintzat, kantuak:

"Neskazaharrak joaten dira Urkiolara, Urkiolara
Santuari eskatzeko senar on bana, senar on bana".



Si miras el calendario, encontrarás un montón de fiestas: Carnavales, las fiestas de cada pueblo, Santo Tomás... Algunas fiestas de Euskal Herria son muy conocidas: ¿Quién no conoce la Tamborrada de Donostia, los sanfermines o el Alarde de Irun? Sin embargo, hay otras, que sin ser tan conocidas, son muy curiosas y bonitas. Un ejemplo de éstas son los sanantonios de Urkiola. Esta fiesta se celebra el 13 de Junio en el Santuario de San Antonio, en el monte Urkiola de Bizkaia. Aunque ahora va gente de toda clase a esta romería, el objetivo es muy especial. Según dicen, San Antonio ayuda a encontrar novio o novia. Dar tres vueltas a la gran piedra que esta delante de la iglesia, luego encender una vela al santo dentro y listo! ¡Al día siguiente pareja asegurada! O eso dice por lo menos la canción:

"Las solteras van a Urkiola, a Urkiola,
a pedirle al santo un buen marido para cada una".

1.7. Erantzunak • Soluciones

1

1. (pág. 60. or.)

Begiratu unitate honetako elkarrizketa.

Ver el diálogo de esta unidad.

2

2. (pág. 60. or.)

MUSIKA/MUSICA
GUSTATU/GUSTAR
JARRI/PONER
ALDATU/CAMBIAR
BAXUXEAGO/UN POCO MAS BAJO
HORRELA/ASI

3

3. (pág. 61. or.)

a.3 / b.2 / c.1

4

4. (pág. 61. or.)

1. Nahiago dut rocka.
2. Ez zaizu gustatzen?
3. Jarri Benito Lertxundi.
4. Oso polita da.

ERREPASOA:

A. (pág. 66. or.)

- a. Julio Iglesias ez zait gustatzen.
- b. Musika oso polita da.
- c. Jarri/jar ezazu baxuxeago.
- d. Jarri/jar ezazu altuxeago.

B. (pág. 66. or.)

ALTUEGIA - BAXUEGIA
POLITA - ITSUSIA
JARRI - KENDU
ESKATU - EMAN
ALTXATU - JAITSI

C. (pág. 66. or.)

Bezeroa: Musika aldatuko duzu?

Tabernaria: Bai, zein musika nahi duzu?

Bezeroa: Musika lasaia nahi dut.

Tabernaria: Hau gustatzen zaizu?

Bezeroa: Bai, hau oso polita da.